



# MUSIKA, OITURAK ETA KALEA

Joxan

Noizbehinka, urtean zenbait alditan, oiturak eta kalea eta musika bat egiten dira, hiru elementuz osaturiko multzo hori benetako artea bilakatzen zaigularik. Beste kezkez, soinu eta tresnez beterik egondako kaleak, oiturazko koplak zaharrez eta dantzaz betetzen zaizkigu, lasaitasun berezia hedatuz denengan.

Lehenagoko gizona hitzaren artista zela zion D. Manuel de Lekuorlak, eta idazkera ezagutzen ez bazuen ere, ahoz eman zigula bere pentsamendua. Eta pentsamendu hori musikarekin elkarturik benetako artea biurtzen zaigu gure kaleetan. Emandako pentsamendu horren jasotzaileak gara, eta inoiz baino gehiago egun berezi horietan.

Azkeneko urteetan, galdurik edo erdi galdurik zeuden zenbait oitura eta portaerak berritu zaizkigu gure herrian Ereintza elkartearen eraginez.

Hara nolaz 1962. urtean, eta lehenengo aldiz, Santa Agedako koruak kalez kale ibili ziren, esandako egunaren bezpe-

ran. Gogoan daukagu oraindik Jexux Otzetaren baritono ahots ederra koplak zahar horiek abesten. Harrezgeroztik, gure kaleak urtero pozez jasten dira oitura hori berriturik.

Kopletan lehenengo agurra etxeko nagusiarentzat doa, bere emankortasuna aitatz, ardoa, pikuak eta intxaurrak eman ditzan, abeslariak ase ditezan. Ondoren etxekoandrea goratua izaten da, eta ez nolanahi gainera, Ama Birjinarekin alderatua izaten bait da.

Dena den, emandakoa gutxi iruditzen bazaie, abeslariak zigor dezakete etxekoandrea koplak gogor batekin: «Hor goian hori errealtatea izateko, zenbait gizon emakumeek itzalean lana egin behar izan dute. Doakiela hemendik gure esker

ona: Periko Lizardi (G.B.), Xexilio Gastesi, Maria Jesus Urruzola...

Baina batez ere Eguberritan oitura horiek ugariagoak dira, eta berpizterakoan, komunitade handiago baten partaideak sentitzen gara; biziak eta hildakoak osatzen dugun komunitade zabalaren partaideak hain zuzen.

Oitura horien artean Olentzeroak zer esan handia daukala inork ez du zalantza egiten; zer esan eta historia handia ere. Historia luze hontan gorabeherak ezagutu ditu noski, antolatzailerik desberdinen eskuetatik igaroaz (Luistarrek, Ibaika, Ereintza, Gestorak... e.a.), debeku ugariak ezagutuz, mota desberdineko politizazioak jasanez.

Badirudi, azkeneko urteetako gertakizunak begiraturik, ez daukagula oso garbi koplak zaharraren mezua, edo behintzat entendimentuz jantzirik ez gaudela, eta zaila zaigu nahaste borrate honetan zein izan behar duen gure jarrera jakiteak. Hobeak etorriko direlakoan gaude.

Dena den, aipatu gabe ezin utzi ditugu hainbeste urteetan gure Olentzeroetan funtsa eta oinarria izan diren Xabier Olaskoaga, Rafa Bereziartu, Xexilio Etxeberria (G.B.) eta Jose Alberto Zapirain. Eskerrik asko.

Bestetik eta 1962. urtez geroztik, Ereintza elkarteak Gabon-Abestiaren txapelketa eratan du, aurreko oitura horrela jasoz. Badirudi, D. Juan Thalamasek dionez, abesti kristauak berriagoak ditugula Euskal-Herrian abesti eskalariak baino; alaz guztiz ere barne muinetaraino sarturik daude gure nortasunean eta gure kulturaren elementu nagusi bat osatzen dute... Txapelketa honek indartu eta kaleratu nahi izan ditu oitura hau. Orain arte kalean ospatu izan da txapelketa, eta, horrela beharko lukeela jarraitu, da nere iritzia.

Azkenik eta bukatzeko, 1974. urtez geroztik Urte Zahar egunean Ereintza elkartearen koroak «Dioste salve» Koplak zaharrak ebartzten ditu tabernaz taberna, Koxme Lizaso bertsolariak bertso berriak jartzen dituelarik. Koplak eta bertsoen bidez, kumplimenduko agurra egin ondoren, familiako guztiak agurtuak izaten dira, bakoitzari mesede bat eskatuz edo gorespena eginik.

Egun seinalatu hauetan lotu egiten dira musika, kalea eta oitura. Lotu egiten gara aurrekoekin eta ondorengoekin. Lotu guadenak eta ez daudenak. Eta musikaz lotu.

Legiarekin kunpli dezagun hemendik aurrera ere, kalea eta musika eta oiturak elkartuz.

